

Zauriak itxi nahian dabiltzanei buruz

Iraganari aurre egiteak dakarren mina dauka gaitzat Felipe Juaristik *'Ez da gaua begietara etortzen'* nobelak


ARANTZAZU MUÑOA
Donostia

Iraganak jipoitzen dituen hiru pertsonaiaren hiru istorio kontatu ditu Felipe Juaristik *Ez da gaua begietara etortzen* (Erein) nobela argitaratu berrian. Hilketak batek jarritzen du abian nobelako kontakizuna. Okerreko pertsona hil du ETAK, eta horrek abiada emango dio oroimenaren gurrpilari. Hala-beharrak hiru pertsonaiak elkartuko ditu: Lope, Miranda eta Gabriel.

«Hiru historia horiek kokatzeko eszenatokia behar nuen. Atentatua, literaturaren ikuspegitik, tramaioa baino ez da, nahi ditudan pertsonaiak azaltzeko eta desagerrarazteko pentsatua», azaldu du idazleak liburuaren aurkezpenean. Eta nobela ez dela politikoa gaineratu du, ezta ETARI buruzko tratatu bat ere. «Gai hau edozein lekutara aplikatu daiteke, izan Euskal Herria, Irlanda edota AEBak».

Pertsonaietako bat argazkilaria da, eta atentatuaren lekuko izango da, hil behar zuten gizonarekin hitzordua zuelako. Beste bat ETAKo kide ohia da: «Gabrielek ETA aspaldi utzi zuen, baina ETAK ez zuen bera utzi. Berak ustez atzean utzitako iragana bere aurrean azalduko zaitu». Azkenik, bere senarra hil duten tokira joan nahi duen emakumearen historia dago.

Hiru pertsonaien historiak badute elkarrekin zerikusia. Izan ere, iraganari berriro aurre egiteak dakarren minaz hitz egiten du: «Pertsonaia bakoitzak bere mina darama, bere hutsaren gainean eta bere mina amaitzeko esperantza». Iragana orainera etortzen zaie pertsonaiei, eta jipoitu egiten ditu. Pertsonaiak bakartiak eta isolatuak dira eta, min jasangaitz horren ondorioz, ezin dute errealtatea den bezala ikusi: «Pertsonaiek ezin dute lorik egin. Begiak irekita ikusten dute beren mundua, lausoarte-



Felipe Juaristi, *Ez da gaua begietara etortzen* nobelaren aurkezpenean, Donostian. MADDI SORDO / ARCAZI PRESS

an eta laino artean bezala, gehienetan. Ez zaie gaua begietara etortzen, ez die gauak begiak ixten, eta horregatik galdua dute berezko ikuspegia». Atentatua gertatu eta bi urtera, pertsonaiak elkartu egingo dira hirian, eta norbere zauriak ixten saiatuko dira.

Juaristik ere horregatik idatzi du nobela: bere zauriak ixteko. Hogeitaz baina gehiago dira honelako historia idatzi nahi zuela. Baina orain arte ez du idatzi, premiarik sentitu ez duelako. Nobela zirriborratzen hasi zenean ez zen haren asmoa *Ez da gaua begietara etortzen* nobelan kontatu duena kontatzea. Hiriaren gainbeheraz hasi zen idazten. Balio moralak azpian geratzen direnean eta haien orde ez beste batzuk gailentzen direnean —ekonomikoak, esaterako— hasien da hiriaren gainbehera, Juaristiren aburuz. Nobelaren azaleko argazkiko geltokiaren metafora erabiliz, esperoan bizi den gizarte baten historia kontatu nahi zuen: «Urte asko daramatzagu edo daramatzat esperoan, baina ez dakigu, edo ez dakit, zeren esperoan gau-

den, ezta zerk bultzatu gintuen hasieran esperoan egotea. Esperoan egotea ez da esperantza egotea, ezta esperantza bizitzea ere. Gurea itxaropenik gabeko itxaronaldia da». Bostehun folio baino gehiago idatzi zituen hasiera hartan, eta handik berrehun baino ez dira geratu.

Airezko emakumeak 2003an argitaratutako nobelaren bezala, estilo barrokoan hasi zen idazten. Baina nobelaren nondik norakoa, zentzua eta estiloa aldarazi zituen zerbait gertatu zitzaion Juaristiri: «Oraindik ere ez dakit zerk eragin zuen aldaketa hori. Izan

«Pertsonaia bakoitzak bere mina darama, bere hutsaren gainean eta bere mina amaitzeko esperantza»

«Urte asko daramatzagu esperoan, ez dakigu zeren esperoan. Itxaropenik gabeko itxaronaldia da»

FELIPE JUARISTI
IDAZLEA

daiteke barnean neraman zirkuaren mina ixteko beharra. Sendatzeko eta, batez ere, bizitzeko, zauriak itxi behar dira, oroitzepe batez ere, mingarri gerta ez daitezkeen».

DOINU LIRIKOA ETA GIRO SURREALISTA.

Nobelaren doinua lirikoa da. Pertsonaien barneko paisaia interesatzen zitzaiolako hautatu zuen doinu lirikoa Juaristik. Pentsatu zuen doinu tragikoa hartzea ere, «baina zaila da tragedia bera patetiko ez bihurtzea». Otu zitzaion doinu komikoa erabiltzea ere. «Baina ez nintzen ausartu, ez azalekoegia izateagatik».

Egilearen esanetan, nobelako giroa ez da errealista, eta batzuetan surrealista samarra ere bada. Pertsonaiak ametsaren eta errealtatearen artean dabilta, zer den ametsa eta zer den errealtatea jakin gabe: «Irudimenaren lurraldean bizi dira gehiago, arrazoimenarenean baino. Ezer ez da dirudiena eta dirudiena ez da ezer. Behar bada ezean bizi gara, ezertan bizi gabe».

Fiskaltzan salaketa jarri dute Mariano Kamioren aurka

ERREDAKZIOA
Donostia

Berroeta Aldamar elkarteak Mariano Kamio elkarteak kudeatzaileraren aurkako salaketa jarriko du Gipuzkoako Lurralde Auzitegiko Fiskaltzan. Balentziaga museoko eraikuntza lanak kudeatzeko sortutako elkarteak —Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Getariako Udalak osatzen dute— irregulartasun larriak izan dira azken urteetan, Kultura sailburu Miren Azkaratek aste honetan bertan onartu zuenez, eta, hala, Berroeta Aldamar elkarteak Mariano Kamiok irregulartasun horietan erantzukizunak ote dituen ikertzeko salaketa jarriko du Fiskaltzan. «Mariano Kamio jaunak sozietatea kudeatzen eta aurrez Balentziaga fundazioa kudeatzen izandako gorabeherak direla eta, bertan egon litekeen erantzukizunak aztertutak eta garbituak izan daitezkeen» hartu dute erabakia.

Pentsara igorritako ohar batean, Berroeta Aldamarrek dio «delitutzat har daitezkeen gorabeherak» atzeman dituela. Atzemanda-koa ere azaldu du: «Faltzakeria dokumentuetan, irregulartasunak kontratuetan, datuak ezkutatzea eta sozietateak argi eta garbi irregulartzat jotzen dituen finantza mugimenduak». Hala, «sozietateak bere esku dituen datuak eta dokumentuak» Fiskaltzari eman-ko dizkio, «behar bezalako ikerketa egin dezan».

ERAIKUNTZA PROZESU KONPLEXUA. Getariako Balentziaga museorekin proiektua sei milioi euroko aurrekontuarekin jarri zuten martxan, 2004an, eta hiru urte geroago aurrekontu hori 20 milioitiki gorakoa da. Azkarate sailburuak 3,5 milioi euroko defizita dagoela aitortu zuen herenegun, bidean egin diren irregulartasunak direla medio. Azken bi asteetan museorekin eraikuntza lanak geratu egin dira, gainera, eta horrela egongo dira luza-roan, behar bada.

bihar berrian



EIDER RODRIGUEZEN

Haragia

narrazio bildumaren aurrerapena



Aukera ezazu.
Bizi euskaraz
berria